

**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako
eta Elikagai Politikako
Saillburuordetza
elikagaien Kalitate eta
Industriako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura,
Pesca y Política Alimentaria
Dirección de Calidad e Industrias
Alimentarias



Europar Batasunak
kofinantzatua
Cofinanciado por la UE

Ohar argigarriak:

- Justifikazio-gastuak aurkezteko azken eguna **2024ko urtarrillaren 15** izango da.
- **2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra** arte egindako gastuen fakturak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.
- Laguntza eskatzen den gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluan ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean (14.999,00 euro, programa-ekitaldiko hornitzaile berarentzako BEZik gabe), frogatu beharko da hiru aurrekontu eskatu dituztela, ondasuna edo zerbitzua kontratatu aurretik.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratzen badira, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, gorabehera horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean, eta, nolana ere, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.
- Onartutako proiektua aurreikusitako epeetan egiten ez denean edo eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatzen edo birprogramatzen denean, aurkeztutako proiektua funtsean aldatzen ez bada, eta betiere laguntza emateko helburuari eusten bazaio, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio zuzendaritza eskudunari, baina ez da laguntza emateko ebazpena aldatuko. Adierazitako aldaketek proiektua aldatzen badute, jakinarazi egin beharko da, eta emate-ebazpena aldatzea ekarriko du.
- Diruz lagundutako jardueraren behin betiko benetako kostua onartutako gastuaren aurrekontua baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidazio-ebazpen bidez murriztuko da, aplikatu beharreko proportzioan.
- Marka komertzialak kontsumitzera bultzatzen duten informazio- eta sustapen-jarduerak EZ dira diruz lagunduko.

a) LGENF funtsen betekizunak. Informazioa eta sustapena

Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (PEPAC) dirulaguntzen onuradunek Europar Batasunaren ikurra erabili beharko dute ikusgarritasun-, gardentasun- eta komunikazio-jarduerak egiten dituztenean. Enblema modu nabarmenean jasoko da komunikazio-material guztietan, hala nola produktu inprimatuetan edo digitaletan, webguneetan eta haien bertsio mugikorretan, jarduera bat gauzatzeari buruzkoetan eta publikoari zuzendutakoetan. Ikurrarekin batera, «Europar Batasunak kofinantzatua» adierazpena aurkeztu beharko da.



Europar Batasunak kofinantzatua

Zehazki, goian deskribatutako ikurrak eta aipamenak honako hauetan agertu behar dute:

- b) Onuradunaren webgune ofizialean, webgunea badute, eta sare sozialetako bere kontu ofizialetan, non eragiketaren deskribapen labur bat egingo duten, laguntzaren mailaren proportzioan, haren helburuak eta emaitzak adieraziko dituzten eta Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduko duten.
- c) Europar Batasunaren laguntza modu ikusgarrian nabarmentzen duen adierazpena egingo dute eragiketa gauzatzearekin zerkusia duten eta publikoarentzat edo parte-hartzaileentzat diren dokumentuetan eta komunikazio-materialetan; halaber, horietan Batasunaren ikurrak ere egon beharko du, 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamenduan jasotako ezaugarri teknikoekin bat etorritik.



Bestalde, edari alkoholdunen sustapen eta publizitatean, edari alkoholdunen kontsumo arduratsuari eta alkoholaz abusatzeke arriskuari buruzko legezko eta arauzko xedapenak bete beharko dira. Gai horri buruz, iaz laguntza-dokumentu bat bidali genizuen justifikazio-arazoak saiheste aldera.